

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3689

1797/2026 EBAZPENA, ekainaren 23koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez ebazpen honetan atzemandako huts materiala zuzentzen baita: 1425/2026 Ebazpena, maiatzaren 8koa, zeinaren bidez deialdia egiten baita Otorrinolaringologiako Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua lehiaketa-sistemaren bidez hornitzeko.

AURREKARIAK

Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen maiatzaren 8ko 1425/2026 Ebazpenaren bidez, Otorrinolaringologiako Zerbitzu Sanitarioko buru lanpostua hornitzeko lehiaketaren deialdia egin zen. Deialdi hori 2026ko ekainaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (109. zk.) eta 2026ko ekainaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (148. zk.) argitaratu zen.

Huts materiala aurkitu denez ebazpen horren testuan, hornitu beharreko espezialitate medikoko lanpostuan parte hartzeko betekizunei buruzko lehenengo oinarriaren d) apartatuan, zehazki, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua administrazio publikoei ematen dien zuzenketa-ahalmena baliatuz, Zuzendaritza honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearen maiatzaren 8ko 1425/2026 Ebazpenaren lehenengo oinarrian atzemandako huts materiala zuzentzea (ebazpen horrek Otorrinolaringologiako Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua hornitzeko parte hartzeko betekizunak arautzen ditu).

Akatsa zuzentzea lehenengo oinarriko d) apartatua kenduta. Ondorioz, eskainitako Zerbitzuko Buruzagitzaren lanpostuari dagokion 2. hizkuntza-eskakizuna izatea ez da betekizuna izango, derrigortasun-datarik ez izateagatik.

Bigarrena.- Enplegu publikora sartzeko publizitatearen, lehiaren eta berdintasunaren printzipioak betetzen direla zaintzeko eta 2. hizkuntza-eskakizunaren galdagarritasuna kentzearen ondoriozko edozein babesgabetasun-egoera saihesteko, 15 egun balioduneko beste epe bat irekiko da eskabideak aurkezteko, ebazpen hau dagozkion aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Buruzagitza horretarako aurkeztutako eskabideek, zuzenketa hau argitaratu aurretik baliozko eran aurkeztu badira, erabateko eraginkortasuna izango dute prozeduran, hargatik eragotzi gabe interesdunek beren edukia aldatzeko edo dokumentazio berria aurkezteko duten ahalmena, ebazpen honen bidez ematen den epe berriaren barruan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu beharko da.

Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteke epea izango da, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Usansolo, 2026ko ekainaren 23a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentea,
GEMMA FERNÁNDEZ PEÑALBA.